

ENPRESEN konfiantza

2022KO 2. HIRUHILEKORAKO AURREIKUSPENAK

Ikerketa Departamentua – LABORAL Kutxa



LABORAL
kutxa


2022KO 2. HIRUHILEKORAKO AURREIKUSPENAK



0 | INGURUNEA


LABORAL Kutxak Enpresen Konfiantzari buruzko inkesta egin die Euskal Autonomia Erkidegoko enpresei, **2022ko bigarren hiruhilekorako** dituzten aurreikuspenen berri izateko. Bada, hobekuntza eta norabide-aldaketa antzematen dira aurreko hiruhilekoetan izandako emaitzekin alderatuta.

Hasteko, enpresek INGURUNE EKONOMIKOARI buruz dituzten aurreikuspenei erreparatuta, % 16,7k bakarrik uste du egoerak okerrera egingo duela egungo hiruhilekoarekin alderatuta. Beraz, ekonomiaren bilakaerari buruzko ikuspegi baikorra da nagusi.




1 FAKTURAZIOA

2022ko bigarren hiruhilekoari begira, enpresek aurreikuspen baikorrak dituzte FAKTURAZIOARI dagokionez. Hain zuzen, inkesta egin duten enpresen % 35,6k uste du fakturazioak hobera egingo duela, % 51,6k antzekoa izango dela eta % 12,8k okerrera egingo duela.




2 | JARDUERA

Aurreko adierazlearekin bat, eta **2022ko bigarren hiruhilekoan** espero den JARDUERAREN bilakaeraren aurrean, % 27,6ren iritziz hobera egingo du, eta % 9,9ren arabera, okerrera. Gainerako % 62,5en ustez jardueran ez da aldaketarik izango.




3 ESKABIDEAK

Saldutako kantitateek eta prezioek izango duten bilakaera da berehala sortzen den zalantza, gako horiek baitaude fakturazioaren eta jardueraren inguruko aurreikuspenen oinarrian. Ildo horretan, eskabideen mailak eta prezioek gora egingo dutela espero da. Ondoren agertzen den irudian ikus daitekeenez, inkestari erantzun diotenen % 34,9k uste du bolumenak gora egingo duela, eta % 12,5ek, okerrera egingo duela. % 52,6k antzeko eskabide-bolumena aurreikusten du hurrengo hiruhilekorako.




4 | PREZIOAK

Era berean, PREZIOEI dagokienez, % 35,6ren iritziz handiagoak izango dira, eta % 54,8ren arabera egonkor jarraituko dute.



5 ERRENTAGARRITASUNA


Eragiketen ERRENTAGARRITASUNAZ galdetuta, % 82,1ek erantzun du «txikiagoa» edo «berdina» izango dela; % 17,9k etekin handiagoa lortzea espero du.



6 | INBERTSIOA


Orain arte aztertutako datuek aurreko hiruhilekoan baino egoera positiboagoa erakusten dute. Jarraian ikusiko dugunez, nolabaiteko hobekuntza espero da, eta, beraz, enpresek berriro heldu diete inbertsio-planei.

INBERTSIO-BOLUMENARI dagokionez, enpresen % 20,5ek uste du gora egingo duela **2022ko bigarren hiruhilekoan**. % 11,5en iritziz, berriz, inbertsio-bolumenak behera egingo du. Beraz, inkesta egin dutenen % 67,9ren ustez, eutsi egingo zaio.



7 ENPLEGUA

Azkenik, enpresen % 76,9k erantzun du ENPLEGUAN ez dutela aldaketarik espero; % 17k langile-taldea handitzeko itxaropena du, eta % 6,1ek, guztiz kontrakoa (plantilla murriztu egingo duela).




2022KO BESTE ADIERAZLE BATZUK



8 KONFIANTZA-INDIZEA ETA ESPORTAZIOEN BILAKAERA


Aurreko adierazle guztiak (inguruneari buruzko iritzia izan ezik) gehitu eta haztatzen baditugu konfiantza-indizea eskuratzeko, emaitza hau lortuko dugu: **58**. Beraz, igo egin da aurreko hiruhilekoarekin alderatuta (**47,8**). Horrek esan nahi du enpresek ekonomiaren bilakaerari buruz duten ikuspegia baikorra dela, **2022ko bigarren hiruhilekoari** begira. Indizea 50 puntutik gora egonik, hedapen-eremuan gaude oraindik orain. Datu hori bat dator beste esparru geografiko interesgarri batzuetan, hala nola Espainian (urtarrileko datua: 56,2) eta eurogunean (otsaileko datua: 58,4) lortutako datuekin.

Bukatzeko, inkestan jasotako beste gai batzuren inguruko emaitzak aurkeztuko dizkizuegu jarraian, aurretik azalduetako indizearen osagai ez direnak. ESPORTAZIOEK azken urtean izan duten bilakaerari erreparatuta, inkestatuen % 26,2k uste du hobera egin duela, eta % 19,7k, berriz, okerrera egin duela. % 54,1en iritzian, kanpoko salmentek bere horretan jarraitu dute.




9 BERRIKUNTZA ETA I+G ALORREKO EKIMENAK

Azken urtean BERRIKUNTZARI EDO I+GKO EKIMENEI bideraturiko salmenten ehunekoari dagokionez, inkestaturen % 77,9 balio minimoetan kokatzen da: % 0 eta % 1 artean. Bestalde, % 6,7k salmenten % 5 baino gehiago bideratzen du arlo horietara.




10 BEZEROEI KOB RATZ EKO EPEAREN BILAKAERA

Inkestari erantzun diotenen % 81,1en ustez, BEZEROEI KOB RATZ EKO EPEAN ez da aldaketarik egon azken urte honetan, eta luzatu egin da enpresen % 15,1en iritziz. Hala, enpresen % 3,8ren esanetan, kobratzeko epea laburtu egin da.



11 | BANKUEN FINANTZAKETA ESKURATZEKO ERRAZTASUNA


Amaitzeko, inkestatuen % 73,1ek erantzun du BANKUEN FINANTZAKETA ESKURATZEKO AUKERAK ez duela aldaketarik izan azken urtean. Gainerako enpresei dagokienez, % 14,7k dio hobetu egin dela, eta % 12,2k, lehen baino zailagoa dela finantzaketa lortzea.




12 | NEXT GENERATION FUNTSAK

Industria-ehuna suspertzeari begira Next Generation funtsek duten garrantzia kontuan hartuta, inkesta honetan beste bi galdera gehitu dira. Bata funtsen gaineko ezagutzaren ingurukoa da, eta bestea, berriz, funtsok eskuratzeari buruzkoa. Ikusten denez, enpresen % 55,3k ezagutzen du plana, eta % 22,6k bakarrik eskuratu ditu funtsak.

Next Generation funtsei buruzko ezagutza



Next Generation funtsak eskuratzeari buruzko ezagutza




2022AN ADIERAZLEAK IZAN DUEN BILAKAERAREN
LABURPEN-DIAGRAMA



12 ENPRESEN AURREIKUSPENAK

Diagrama honetan, azertu ditugun azken bi hiruhilekoetako aurreikuspenen adierazle partzialen balioa eta osoko balioa ikus daitezke.



Fitxa teknikoa eta metodologia

EAEko 400 enpresari egin zaie inkesta
